

EKONOMIA

Gatazkaren beharraz



NAROA ELORTZA
GORROTXATEGI

ULARCoko Zerbitzu Zentralek argitaratutako liburuxka dut eskutan: *Arrasateko esperientzia, prozesu gisa* (Arrasate, 1985). Bertan, Ulgor kooperatibaren prozesu organiko, kolektibo eta gatazkatsuak jasotzen dira. Besteak beste, 1974an ordainsarien sistema aldatzeagatik kooperatibaren baitan izandako gatazka kontatzen du; greba, kalera-tzeak, isunak, batzarrak, organoen arteko eztabaidak... Esperientzia, subjektu eta komunitate kooperatiboen inguruko harra duzuenontzako, harribitxia.

Arrasateko Kooperatiben Esperientzia imitatzeko mezutik urrun, kooperatiben bideragarritasun sozialerako zenbait gako eskaintzen ditu ikerketa lanak. Beti ere, kooperatibak prozesu dinamiko gisa ulertuta, errealitate sozioekonomikoei eta bizitzaren eta komunitatearen beharrei erantzuteko egokitzen joan behar duen erakunde gisa.

Gatazka eta borroka gaizki ikusita eta deseroso diren garaiotan, bereziki komunitatea eta gatazka lotzen dituen pasartea ekarri nahi nuke hona, bere horretan: "Kooperatibak ez dira aurretik zegoen komunitate baten emaitza; orain dagoen 'komunitate' maila, berez, kooperatiben beraien jarduteko moduaren emaitza baita. Komunitatea osotasunean hartzea eskatzen duen prozesu sozial baten barruan eratzen da, hain zuzen, komunitatea bera. Gainera, komunitatea izateak ez du inoiz esan nahi izan gatazkak desagerraraztea. Aitzitik, komunitatea izateak esan nahi du aspian dauden gatazkak agerian uztea eta horiei modu kolektiboan aurre egitea. Zentzu horretan, komunitatea eta gatazka sinonimoak dira".

Eta gu, elkarbizitzaren izenean, gatazkak saihesten; kooperatibetan eta kooperatibetatik kanpo. Bada garaia gatazkari bere lekua aitortu, bake sozialaren gezurra desmuntatu eta gizarte mailan ditugun larrialdiei modu kolektiboan erantzuteko. Baditugu tresnak, txinparta besterik ez dugu behar. ●

ANALISIA



Noiz normalizatu dugu (berriro) ipurdikoa ematea seme-alabari?

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

3urteko alaba amarengana gerturatu delarik, honek bat-batean zartakoa eman dio eta negarrez utzi du umea. "Etortzeko esaten dizudan hurrengo aldian, lehenengora egidazu kasu". Deseroso begiratu dugu egoera, baina ez dugu esku hartu. Halakoetan inork ez diolako gurasoari kargu hartzen.

Gaian aditu direnei irakurri diedanez, gainera, umea jotzen ikusten dugun aita-amari kargu hartzea arindua izan daiteke guretzat, baina beharbada haur horren kalterako izango da, gurasoa ez dugulako konbentzituko, eta etxera iristen denean, agian bortitzago jardungo duelako seme-alabarekin, amorratuta. Egin dezakegun onena omen da gurasoari gaitzespen begirada botatzea eta umeari, aldiz, enpatia eta konplizitate begirada zuzentzea.

Kontuak kontu, soluzio horrek ez dirudi oso eraginkorra errealitate bati aurre egiteko: oraindik ere nahiko normalizatuta dago ipurdikoa, zartakoa, astindua, kaskarrekoa. Beste belaunaldi batzuetako gurasoen kontua zirudien, eredu autoritarioago haren aldean gaur egungo gurasoei gehiago leporatzen zaigulako seme-alabak gainbabesteko joera eta mugak jartzeko zailtasunak. Baina inguruan apur bat galdetuta konturatu naiz ipurdikoaren kultura bizirik dagoela gurean.

Ez gutxitan errepikaturiko esaldiak dira: laxoegi jotatzea baino hobe da garaiz emandako zartakoa, noizbehinkako ipurdikoa ez da hainbesterako, guri ere jotzen ziguten eta ongi joan zaigu. Baina ez dago ikerketa bakar bat ere indarkeria erabiltzeak seme-alabaren heziketan onuraren bat izan dezakeela ondorioztatzen duenik; izatekotan, kontrakoa. Kasu egiten ez digulako ez genioke heldu bati joko. Bada, motibo gutxiagorekin haurrari, babesgabeago dagoelako eta ez duelako nahikoa gaitasun heldu baten aurrean ez fisikoki ez hitzez defendatzeko.

Seme-alabek hainbatetan gure onetik ateratzen gaituztela? Haiekin haserretzeko eskubidea dugula? Garrasi eta mehatxuek denoi egin digutela ihes unerren batean? Jakina! Kontua da hori guztia nola gestionatu. Esther Martinez bitartekariak ARGIA azaldu zigunez, "urduritasun edo tentsio momentu bat dagoenean, premisa bat izan behar dugu buruan: bera zenbat eta urduriago, ni orduan eta lasaiago". Beti ez da erronka makala, baina inork ez zigun esan seme-alabak hezte erraza zenik! ●